

Iruinek CESIDen agiriei buruzko erabakia errekurritu du Gorenean

Lasa, Zabala eta Urigoitiari buruzko bost agiri ukatu dira

CESIDeko agiriak ez desklasifikatzeko Espainiako Gobernuak hartutako erabakia errekurritu du Inigo Iruin abokatuak Auzitegi Gorenean, babes juridikorako oinarriko eskubidea bortxatu dela argudiatuz. Gobernuak estatu terrorismoaren zigorgabetasuna «lotsagabeki» erakutsi duela uste du Iruinek.



Inigo Iruin abokatuak Lasa eta Zabalaren eta Urigoitiaren kasuetako akusazio partikularra darama.

JOXEAN GOYA

Erredakzioa / Donostia

GOBERNUAK epaileei ukatu dien CESIDeko agiri sekretuen artean lau Joxean Lasaren eta Joxi Zabalaren kasuari dagozkio, eta bat Lutxi Urigoitiaren heriotzari dagokio. Javier Gomez de Liaño Entzutegi Nazionaleko epaileak eskatu zizkion Gobernuari Lasa eta Zabalaren auziari buruzkoak, eta Justo Rodriguez Donostiako epaileak Urigoitiaren heriotzaren ingurukoa. Bi kasu horietako akusazio partikularra Inigo Iruin abokatuak darama, eta PPKo gobernuak hartu duen erabakiaren kontra jo du Auzitegi Gorenera.

Abuztuaren 2an erabaki zuen Ministroen Kontseiluak CESIDeko agiriei ez altxatzea sekretua. Erabaki horren kontra errekurtsio kontentzioso-administratiboa aurkeztu du Inigo Iruinek, eta Auzitegi Goreneko 3. Gelak aztertu eta erantzun dio.

Bide berezitik jo du Iruinek gobernu erabakiaren kontra. Izan ere, oinarriko eskubide bat bortxatu dela uste du abokatuak, hau da, Espainiako Konstituzioak jasotzen duen babes judizialarena. Auzitegi Gorenak Gobernura joko du orain, erabaki hura hartzeko erabili zuen espe-

diente administratiboa igor diezaien. Dokumentazio hori Iruin abokatuari helaraziko dio ondoren, eta honek 20 egun izango ditu bere argudioak landu eta errekurtsioa gauzatzeko. Iruinen ustez, Gobernuak «estatu terrorismoak duen zigorgabetasuna lotsagabeki erakutsi du» CESIDeko agiriek ez zuten erabakiarkein.

Erabaki horren kontra epaitegietan egin den lehen ekimena da atzo Iruinek iragarri zuena. Auzitegi Gorenak errekurtsioa arbuaitzen badu, Auzitegi Konstituzionalera jo ahal izango du Iruinek.

Nafarroako IUK errekurtsioa aurkeztu du • IUK errekurtsio bat aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Mahaiak joan zen ostiralean hartu zuen erabakiaren kontra. Parlamentuak ez zuen tramiterako onartu IUK CESIDeko agiriei buruz proposatu zuen mozioa. IUK Jose Maria Aznarren

gobernuaren jokaera gaitzetsi nahi zuen, PPK oposizioan zegoenean CESIDeko agiriei sekretua kenduko ziela agindu arren agintera iritsi denean agiriek sekretuan gordetzea erabaki baitu.

Iuren ustez, Madrigo Gobernuaren erabakiak oztopatu egingo du GALen auziaren ikerketa, epaileek ez dituztelako CESIDeko paperak eskuratuko oraingoz. CDNk, HBk eta EAK mozioaren aldeko botoa eman bazuten ere, UPNk eta PSNk atzera bota zuten. IUK gogor kritikatu du bi alderdi horien jarraera, mozioa tramiterako ez onartzean Gobernuaren erabakiari buruzko eztabaida eragotzi dute eta. Nafarroako Parlamentuak «GALen auzia argitzeko ahal zuten guztia» egiteko eskatu zion Espainiako Gobernuari iazko uztailan. Iuren arabera, Madrigo Gobernuak ez dio jaramonik egin eskaerari, eta azalpenak eman beharko lituzke horregatik. X

Hiru autobus erre dituzte asteburuan Portugaleten

Atxilotutako gaztea espetxeratu egin dute

Vasco Press / Bilbo

AURPEGIA estalita zeramaten hainbat gaztek hiru hiri-autobus erre dituzte Portugaleten asteburu honetan, eta ostiralean atxilotutako gaztea espetxeratu egin dute. I.R.G. 24 urteko gaztea autobus bat erretzen saiatzeaz eta ertzain bati molotov koktel bat botatzeaz akusatuta dago. Ertzaintzaren arabera, gazteak molotov koktel bat bota zion ertzain talde bati. Ertzaintzak gaztea harrapatu eta atxilotu egin zuen. Atzo Barakaldoko epaitegian deklaratu ostean, epaileak espetxeratzeko agindu zuen eta Basauriko kartzelan dago.

Gertaerak ostiralean hasi ziren, hogeit bat gazte bi hiri-autobus erretzen saiatzean. Autobusen aurrealdeak birrinduta geratu ziren, kristalen kontra botatako harrien eta molotov koktelen ondorioz. Ertzaintzaren eta gidarien partaidetzarekin kalteak ez ziren handiak izan, eta Bizkaibus enpresakoen hitzetan, autobus bakoitzean sortutako kalteak 4 milioioak izan daitezke.

Igandean, aurpegia estalita zeramaten hamar gazte Gorbea plazaren inguruan bildu ziren eta autobus bateko bidaiariak jaitziaz zituzten. Autobusera bota zituzten molotov koktelen ondorioz, ibilgailua erabat suntsituta geratu zen. X

Tolosan eta Azpeitian bi bomba indargabetu dituzte

ETAren izenean dei bat jaso du Gurutze Gorriak

Vasco Press / Donostia

TOLOSAKO eta Azpeitiko epaitegietan bi lehergailu indargabetu zituen Ertzaintzak joan den larunbatean. Ertzaintzak adierazi duenez, lehergailu bakoitza hiru kilo amonalez osatuta zegoen eta lehertuz gero kalte larriak sor zitzaizkiren. Lehergailuak lapiko batzuetan zeuden eta lapikoak poltsa batzuetan sartuta. Bi poltsak epaitegien kanpoaldean zeuden.

Lehergailuek, baina, ez zuten ezta dirarik egin. Goizeko 06:30etan Gurutze Gorriak dei

anonimo bat jaso zuen, ETAren izenean lehergailuak non zeuden zehazten zuena. Hala ere, lehergailuek ez zuten eztanda egin. Ertzaintzak lehergailuak atzeman zituen eta ondoren indargabetu.

Azken sei urteetan, Tolosako eta Azpeitiko epaitegietan atentatuak egin dituzte. Hala ere, atentatu hauek ETAren inguruko taldeek eginikoak ziren, ez ETAK berak eginikoak. Tolosako epaitegiak hiru atentatu jaso ditu 1990 eta 1995 urteen artean. Azpeitikoari, berriz, bi alditan egin diote eraso; iazko abuztuaren azken aldiz. X

AYUNTAMIENTO DE IRUÑEKO DE PAMPLONA UDALA

EUSKARAZKO KULTUR AKTIBITATEAK DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIA 1996KO AZKEN LAUHILABETEKOAN

1996 urteko azken lauhilabetekoan antolatu edo antolatzeko diren euskarazko kultur aktibitateak diruz lagunduak izateko interesatuak dauden elkarte eta erakundeek irailaren 27an, eta 14.00 orduetan, bukatzen den epearen barnean eskakizuna egin beharko dute Iruñeko Udalaren Erregistro nagusian:

- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:
- Diru laguntzaren eskakizunaren objektua diren aktibitateen memoria deskribagarria.
- Gastuen eta dirusareren aurrekontua.
- Elkarteen Erregistroko inskribapenaren fotokopia non helburuen artean kultur aktibitateen antolaketa agertu behar den; baldin eta helburu beragatik alde zuretik aurkeztu ez bada.
- Eskakizuna Kultur Aferen Alorak proposatu ereduaren bidez egin behar izango da.

EUSKARA IKASTEKO HELBURUZ BARNETEGITAKO IKASTAROETAN PARTE HARTZEARI DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIA

1996 urtean direlako barnetegi ikastaroetan parte hartu duten edo hartzeko diren Iruñeko bizilagunek Udalak eskeintzen dituen diru-laguntzak (95.-X-19ko Z.D.E.) erdietsi ditzakete. Eskakizun epea: 1996ko azaroaren 29an bukatzen da: Erregistro nagusian: 14.00 orduetan. Irizpideak: Udal argibideak bulegoan Kultur Aferen Alorrean (Descalzos K/72). Ikastaroa: Gutxienez lau asteak. Oharra: Dagoeneko eginik diren eskakizunak deialdi honetan automatikoki sartuak dira.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

EGITASMOA: 819 OLABEAGA, BILBO / 819 BANAKETA EREMUA, OLABEAGA, BILBO

BAHEGIBARRAREN IZEN-ABIZENAK ETA HELBURUA	JABEGO KENTZEA LURZATIA-REK 29K	LUZE ZABALA	JABEGO ERROLDAKO ZERBITZUA LUR-EREMUA	HARTU BEHARRIKO ONDABURAREN BALIAPIDEA ETA JABEGO ERROLDATZERA	HIRIKOA
D. Jose Antonio Tolosa Enxeta In 500	1	12.465,00 m ²	1.607	07	Hirikoa: Lurzoria San Nicolas de Olabeaga A09
D. Francisco Hernandez Alonso In 500	2	285,00 m ²	1.607	06	Hirikoa: Lurzoria San Nicolas de Olabeaga A02
D. M. Natividad Martin Larrea Ana	3	435,00 m ²	1.607	09	Hirikoa: Lurzoria eta Erakintzak Alfonso Churruena Kalea 9, 10, 11, 12 eta 13
D. Roberto Gorría Nafarrate In 500	4	160,00 m ²	1.607	05	Hirikoa: Lurzoria
D. Jose M. Ariza A. Transportes	5	505,00 m ²	1.607	01	Hirikoa: Lurzoria Alfonso Churruena Kalea 21, 22, 23, eta 24
Ezezaguna	6	125,00 m ²	1.607	03	Hirikoa: Lurzoria eta Erakintzak Alfonso Churruena Kalea 14
Bilboko Udala	7	235,00 m ²	1.607	04	Hirikoa: Erdeak